

MALLEBIKO ABADEA

Kortezubiko Matias Aranazek kontatuta 1920an

Abade bat zen Mallebin ehiztari. Txakur onak zituen. Baten meza ospatzen zegoela ekarri zioten bere txakurrek eliz ondora erbia. Meza bertan bera utzi eta irten zuen erbia harrapatzera eskopeta eta guzti.

Mendirik mendi dabil oraindik ere goseak amorratuta. Baten andre bat aurkitu zuen labasua egiten. Ogia eskatu zion, eta andra horri ogia eskuetan hartuta joan zen abadearengana ematen, baina abadeak ez zuen astirik hartzeko, eta joan zen aurrera gaur arte.

Askok esaten du basoan ikasgin dagozenek ikusten dutela, eta entzuten dutela txakurrei egiten dien txistua, eta bera dabilenean haizeak zarata handia ateratzen duela.